



## ACBk gaur ekingo dio berriz produkzioari

Aceria Compacta Bizkaia (ACB) Sestaoko Arcelor Mittalen plantak gaur gauean berrekingo dio jardunari, urte erdi baino gehiago geldirik egon ostean.

Alabaina, asteburuetan (argindarra merkeago dagoen uneetan) baino ez dute ekoiztuko, eta 140 langilerekin, 12.000 bat altzairu tona hilean.

## Obamak bertan behera utzi du Dutertekin hitzartutako bilera



Barack Obama AEBko presidentek bertan behera utzi zuen Laosen, Rodrigo Duterte Filipinetako presidentearekin egitekoa zuen bilera, agintari filipinarraren irainengatik.

Dutertek "putakume" deitu zion Obamari, AEBk Filipinetako Gobernuaren narkotrafikoaren kontrako politika ezbaian jarri ostean.

## Ipar Koreak egindako proba nuklear batek lurrikara bat eragin du

Ipar Koreako Gobernuak baieztatu egin du bosgarren proba nuklearra egin duela, aldameneko herrialdeek haren instalakuntza nuklear nagusien inguruan ezohiko "jarduera sismikoa" antzeman eta gero.

## Applek iPhone 7a aurkeztu du, ura jasaten duen bertsio berria

Tim Cook Appleren kontseilari ordezkariak iPhone 7a aurkeztu zuen atzo, 2007an jaio zen sakelako telefonoaren bertsio berria. 769 eurotik gora egongo da salgai, hilaren 16tik aurrera Espainian.

iPhone 6aren profilari eusten dio bertsio berriak, baina zati gutxiago ditu aluminiozko pieza bakarrean egindako gailuak; izan ere, ez du ohiko audio sarrera-irteerarik izango, eta energia eta datuak kargatzeko portua erabili beharko da horretarako.

Gainera, iPhone berriak 12 megapixelean kamera izango du, argi gutxiko egoeretan kalitate handiko argazkiak ateratzeko aukera emango duten lenteekin.



iPhone 7 Plus bertsioak, berriz, lente desberdinetako bi kamera (angeluhandia eta teleobjektiboa) izango ditu, eta zoom optikoa erabiltzeko aukera.

Modelo berriaren pantaila ere hobetuko dute, 3D Touch sistemarekin. Era berean, iOS 10 sistema eragilea izango du.

## Sakelakoa kalean bertan kargatu

Herritar gehienek sakelakoa erabiltzen dute uneoro, baina horrek duen eragozpen handienetariko bat bateria agortzea da. Arrazoi horregatik, eguzki-kargagailu bat instalatu dute Donostian, sare elektrikora konektatu beharrik ez duena. Aldi berean, lau telefono edo tableta kargatu daitezke.

Eguzki-kargagailua diseinua egiteko orduan, zuhaitz batean inspiratu dira, elementu ekologiko garrantzitsu bezala. Egitura hasteko, metalezko zilindroa (enborra), bi eserleku eta masta inguratzen duen mahaia jarri dira (eratzun edo hirusta eran). Goiko aldean aterki zirkular zeharrargia jarri da, eta horren gainean panel fotovoltaikoa aurkitzen da.

## 8.000 euroan erosi dute Ordiziako gazta irabazlearen erdia

Okeletxe harategi taldeak Ordiziako Idiazabal gaztaren lehiaketako irabazlearen gazta erdia erosi du 8.000 euroren truke.

Udaleko iturriek azaldu dutenez, Joseba Intsausti ordiziarra izan da latxa edo karrantzarra ardi gazta gordinarekin egindako gazten lehiaketako artzain irabazlea, bigarrena izan da Elgoibarko Mausitxa baserrikoa; eta hirugarrena, Olaberriko Aizpea gaztandegia.



2014 urtean Ampok gazta erdiagatik ordaindutako prezioetik urrun geratu dira aurten, orduan 13.050 euro ordaindu baitzituzten.

### Neguko ordutegia zenbait garraiotan

Aste honetan bertan, Metro Bilbaok neguko ordutegia abiatu du. Hala, udazken eta neguko hilabeteetan ohikoak diren zerbitzuak izango dira martxan gaurtik aurrera.

Basauri-Kabiezes zerbitzua, esaterako, 05:57an hasi eta 22:57an amaitzen da, astelehenetik ostiralera eta jaiegun bezperatan. Irailaren 30era arte, baina, asteburuetan, udako zerbitzu berezia izango da indarrean.

Datorren astelehenean, berriz, Euskotrenek Bizkaian duen eskaintza hobetuko du, Ermua/Eibarrerantz, Gernikarantz eta Bermeorantz doazen zerbitzuen maiztasuna handituz.

Renfek ere Aldiriko tren zerbitzuak areagotuko ditu C-3 linean (Bilbo – Urduña), 146 tren ibiliko dira egunero lanegunetan. Oporraldian, kopurua 114 trenetara murriztu da. C-1 (Bilbo-Santurtzi) eta C-2 (Bilbo-Muskiz) lineek ordutegi berdina mantentzen dute neguan eta udan.



## Deiadar Mendien Eguna

Deiadar Mendien Egunaren agertokia Balmasedako tontorra izango da. Igande honetan Koltizan ospatuko da Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatutako 13. edizioa. Aurreko urteetan, jaia beste lau deiadar tontorretan ospatu da: Gorbeia, Ganekogorta, Sollube eta Oiz.

Igandeko igoera 09.30ean hasiko da Balmasedako San Seberino plazatik. Parte hartzaileak Koltizako tontorrera igoko dira, 12.00etan adarrak jotzeko tradizioa beteteko, 6,2 kilometroko igoera egin ondoren.

Koltiza mendian entzungo den adarraren soinuaren ostean, antolatzaileek jaigune txiki bat prestatu dute, eta bertan ez dira faltako musika, dantzak eta jateko pixka bat. Enkarterrian tradizio handia duten putxerak izango dira hamaiketakoaren parte.

### 'Itsasbidea igeriz' probaren 77. edizioa ospatuko da igandean

Datorren igandean, eguerdiko 12:15ean emango zaio hasiera Bilboko Itsasadarrean jokatu den kirol 'Itsasbidea igeriz' proba historikoari.

Proba Pio Baroja plazan hasiko da eta bi modalitate izango ditu: 680 metroko zeharkaldi laburra eta 2.380 metrotako zeharkaldi osoa.

### Abian da sokatira munduko txapelketa

Suediako Malmoe herrian jokutzen ari da sokatira munduko txapelketa. Euskal taldeari beldur diote parte hartzen ari den hainbat herrialdek.



### EGURALDIA Hodei gutxiago astebururako

Giro eguzkitsua larunbatean, baina arratsaldean, ordea, bero-hodeiak garatuko dira eta baliteke zaparrada trumoitsuren bat botatzea. Haizea aldakor eta ahul ibiliko da goizean eta ipar-ekialdekoa nagusituko da arratsaldean. Tenperaturan aldaketarik ez edo gutxi igoko da.



Igandean giro eguzkitsua izango dugu goizetik gauera, nahiz eta behe-hodei batzuk sor daitezkeen. Ekialdeko haizea ibiliko da eta tenperatura beste pare bat gradu igoko da.